

PUNTO DE VISTA

Festival Internacional de Cine Documental de Navarra

Nafarroako Zinema
Dokumentaleko
Nazioarteko Jaialdia

International
Documentary Film
Festival of Navarra

IRUÑA. 2016ko OTSAILAK 8-14



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

FUNDACION
BALUARTE

INFORMAZIO PRAKTIKOA

JAIALDIAREN EGOITZA

BALUARTE

- ▶ Baluarte plaza z/g. 31002 Iruña
- ▶ Telefonoa: 34 948 066 066

JAIALDIAREN BULEGOA

- ▶ Jendea artatzeko ordutegia: 9:30-14:00 eta 16:30-20:00
- ▶ E-maila: info@puntodevistafestival.com
- ▶ Telefonoa: 948 066 199 / 948 066 200
- ▶ Web orria: www.puntodevistafestival.com

TEN YEARS OLDER

Zure eskuetan duzun hori urtebetetzeko tarta da eta ez esku-programa. Tartak hamar kandela ditu Punto de Vista Jaialdiak 10 urte bete baititu. Norbaitek beharbada esango luke, “*Ze gutxi! Donostiakoak 60tik gora ditu eta Venezia eta Edinburgokoak laster ehun urte beteko dituzte*”... , baina guk ondorengoa esango diogu: “*Memento bat, guretzat, gure mundu txikitik begiratuta, hamar urte asko izan dira eta dira, ia eternitate bat, hamarkada honetako bizimodu zaila eta izandako etenaldiak kontuan hartuta*”.

Eta, azkenik, jaialdiak burua itzuliko du, Punto de Vistarentzat historikoa izango den keinuarekin; hots, hasierako pasabidearen edo Golko bat gurutzatzearen keinua izango da. Aurrera begiratu ordez, orain arte izandako zalantzazko etorkizunaren beldur, azkenean Punto de Vistak begirada atzera itzuliko du distantziaz iragana begiratzeko eta hamar kandelako pastelarekin errepasatu, berrikusi, ospatu eta partekatzeko.

- 1. Kandela. Erdialdeko Eskualdea.** Geure buruari egin diogun opariak gure lehiaketako zinema-atal arriskutsuenari beti izena eman dion pelikula bera izan behar zuen. Gainera, Michael Snow autorea bertan izanda. Kandela nagusia.
- 2. Kandela. Atal Ofiziala.** Eklettizismo, etxekotasun eta arriskuarekin, 9 film luze eta 8 film labur, guztira 17 pelikula erantzunik gabeko galderez beteta.
- 3. Kandela. Pollet.** Frantziatik hona, zineman ondoen gordetako altxorra. Behin lehen atzera begirakoa egitear egon ziren Pompidoun, baina langileen greba zela-eta, zintzilik geratu zen. Gaur arte.
- 4. Kandela. Denbora.** 10 urte hauetako gonbidatu nagusia, honako gai hauen inguruko atzera begirakoarekin: Denboraren eta Zinemaren arteko erlazioa, elkarriketa, gatazka, susmoak eta dantzak.
- 5. Kandela. Maenza.** Kandelarik heterodoksoena, asalduraz eta misterioz betetako sugarrarekin. Terueldik, gure filmoteketan ahaztuta zegoen zinemagilearen erreskate berria.
- 6. Kandela. X films.** Aurtengo hautagaiak hiru ziren: Xacio Baño, Carolina Astudillo eta Velasco Broca. Helburua X konkistatzea eta intrigaz betetako dokumentala egitea gure aterkipean.
- 7. Kandela. Baroja.** Kandela honek argizaiolaren forma du (Euskal Herriko hileta-kandela), eta Pio Caro Barojari egiten dio argia duela gutxi hil zelako eta Nafarroako denboraren eta tradizioaren inguruan egindako erretratua omendu nahi delako.
- 8. Kandela. Siriako film laburrak.** Jaialdiak bat egin du errefuxiatuen dramarekin, eta Siriako neskatxa errefuxiatuek egindako film labur batzuk ematea erabaki du, atal ofizialaren eguneroko aurrerapen gisa. Eguneroko kandela.
- 9. Kandela. Saio bereziak.** Ospina, Simon, Guerin, Vera eta Kossakovsky. Jaialdiko bost ginga, merengea koroatzeko.
- 10. Kandela. Zu zeu.** Zu gabe ezinezkoa da ospakizun hau egitea. Ongi etorri!

Oskar Alegria
Zuzendari artistikoa

SO**Atal Ofiziala - Erdialdeko Eskualdea**

9 film luze eta 8 film labur lehiatuko dira ondorengo sariak eskuratzeko: Punto de Vista Sari Nagusia Pelikula Onenarentzat, Jean Vigo Saria Zuzendaritza Onenarentzat, Film Labur Onenaren Saria, Publikoaren Saria eta Gazteriaren Saria. Darkness Saria banatuko da Siriako film laburren hautaketaren artean.

TY**Ten Years Older**

Pelikula guztiak denboraren inguruan egin dira, baina batzuek besteek baino denbora gehiago dute. Programak azken horiek omentzen ditu, eta galdetzen, eztabaidatzen, goraipatzen, dantzatzen edo orduen, egunen eta urteen joatea suntsitzen ahalegintzen diren filmetan oinarritzen da.

PO**Pollet. Etxea eta mundua**

Jean-Daniel Pollet-en zinematik bidaiarako gonbita luzatzen digu, erabat tentsioan agertzen diren aurkakoen orekaren barruan: mugiezintasuna eta trantzea, aurpegia eta paisaia, irudia eta hitza, bidaiak eta gordelekua. Nola pentsatu Pollet-en filmografia? Beharbada berriz idazteko lan etengabearen gakoarekin, obsesioz errepikaturiko pieza gutxi batzuekin egindako muntaketarekin, Cezanne-k Saint-Victoire mendia errepikatu zuen bezala: beti bera, beti ezberdina.

MA**Heterodoksiak: Maenza existitzen da!**

Ahazturiko probintziaren gerraren oihua bezala, aurten Heterodoksiak atala harridura-markarekin dator. Norbaiten izena oihukatu behar da, erreklamatzeko eta argira ateratzeko aldera. Gaur arte nazioarteko zine jaialdietan oraindik ez da atzera begirakorik antolatu Jose Antonio Maenzaren inguruan, eta, horretarako, Carles Candelaren dokumentala estreinatuko dugu, mahai-inguru entzutetsua antolatuko dugu, haren lanak zuzenean dramatizatutako irakurketekin berreskuratzearekin batera, hark bizitzan proposatzen zuen moduan.

SB**Saio bereziak (autoreak bertan izanik)**

Claire Simon eta Luis Ospina gure epaileek beren azken film luzeak aurkeztuko dituzte. Gainera, Punto de Vistaren hamargarren urtemuga ospatuko dugu gure Saio Ofizialari izena ematen dion pelikularekin: Michael Snow-ren La Région Centrale. Larunbatean, José Luis Guerin izango dugu, eta Espainian haren azken film laburra, Le Saphir de Saint-Louis, estreinatuko da. Azkenik, Ainara Verak eta Victor Kossakovsky-k amaiera bikaina eman gote diote jaialdiari Iruñeko kaleetan zehar filmaturiko Mira, mi rey filmaren estreinaldiarekin.

XF**X Films proiektua**

Punto de Vistak Espainiako hiru zinemagileri berriro eskainiko die Nafarroan ikus-entzunezko lana egiteko aukera. Carolina Astudillok, Xacio Bañok eta Velasco Brocak beren proiektuak aurkeztuko dituzte, eta X Films Batzordeak hautatutakoak finantzaketa lortuko du obra dokumental bat zuzentzeko; lan hori 2017ko edizioan estreinatuko da.

EV**Eventos**

Hiru gertaera jaialdian zehar elkarren osagai izan eta hedatuko dira. Hasteako, asteazkenean, zinemari buruzko begirada pedagogikoa egingo dugu Zinema martxan tailerrari esker. Ostegunean, berriz, gure lurraldearen eta zinemaren arteko erlazioari atzera begirako diogu, Navarra (1936-2016): La memoria audiovisual muntaiaren inguruko solaslaldiarekin. Azkenik, ostira-lean, Punto de Vistarentzat gonbidatu historikoa izango den Michael Snow-klase magistrala emango du.

PA**PA Saioak**

Prentsarentzat eta egiaztatuentzat lehentasunezko saioak.

EL**EL Saioak**

Sarrera doaneko saioak; gonbidapena aurrez hartu behar da leihatilan.

Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatzen dira

Otsailak 8, Astelehena

10:00 – Ganbera Aretoa

SO PA

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia (123')

OLEG Y LAS RARAS ARTES

Andrés Duque-rena. Espainia, 2016. 70'

Andrés Duque katua Iván Zulueta-rena hurbildu zen pauso isil berdinekin hurbiltzen da Oleg Karavaichuk-engana. Orain erretratatu dena Oleg K. da, 89 urte izanik, oraindik, kultura errusiarrarentzako eta, are gehiago, nazioartekoarentzako, figura enigmatiko izaten jarraitzen duen musikaria. Oleg Ermitage-n gordetako piano inperial handia museoa ixten den egunetan jotzeko pribilegio historikoa duen bakarra da. Baina badu egungoagoa den pribilegio bat ere: bere artearekin bere herrialdearen nortasuna egunero desafiatzeko pribilegioa, uneoro eraldatuz eta berrasmatuz.

CANTONESE RICE

Mia Ma-ren. Frantzia, 2015. 50'

Azterrian dagoen familia txinatar baten etxean eta intimitatean –errebatuena eta hermetikoa izan ohi den immigrazioetako bat– sartzeko pribilegioa. Adopzio-herrialdeko gazta, ez, ordea, hizkuntza, oso gustuko duen amona kantondarra sarritan herrialde berria gogoko ez duen aita batekin. Egokitzen, kasu honetan, Frantziara egokitzea, txinatarrez hitz egiten ez duen protagonista baten begi luzangatetik ikusita. Guztia saiakera moduan, umorearekin eta paradoxa handiarekin, alegia, jatorriko herrialdea nola bilatu immigrazioko kideen bitartez.

Saioaren hasieran Siriako *The Silence of Nature* film laburra aurkeztuko da

12:30 – Ganbera Aretoa

SO PA

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia (82')

LAS LETRAS

Pablo Chavarría-rena. Mexiko, 2015. 77'

Pablo Chavarría bere bosgarren filmean erreala denaren muga aukatzen du Chiapasen argitu gabeko epaiketa baten inguruan bidaia sensorial eta saihekorra proposatzeko. 2000. urteko ekainean, lau polizia erailda agertzen dira. Alberto Patishán eskualde mexikarreko irakasle eta aktibista 60 urteko kartzela-zigorrera kondenatzen dute gertaera horren ondoren. Tartean behin, bere seme-alabei idazten dizkien gutunak entzuten ditugu: “Itxaropena denborarekin egindako kontratu inozoa da” idazten die. Batere argia ez den justizia eta indarkeria, hura arrakastarik gabe saihesten saiatu den herrialde batean, filmatzeko modurik onena abstrakzioa eta hipnosia dira.

Saioaren hasieran Siriako *The Girl, Whose Shadow Reflects the Moon* film laburra aurkeztuko da

17:00 – Ganbera Aretoa

SB

Saio bereziak: *Claire Simon*

LE BOIS DONT LES RÊVES SONT FAITS

Claire Simon-ena. Frantzia, Suitza, 2015. 144'

Claire Simonek ia urbanoa den oihan baten geografia erretratatzeko bere azken lan handi honetan, Vincennesko basoa, Paris kanpoaldean. Denon eskura dagoen paradisu galdu moduko bat da, eskuragarria, mundu guztiak jotzen du bertara aterpe edo bakardade bila, begiradaren arabera. Basoak klase sozial guztietako kideak onartzen ditu, bereizketarik gabe, eta besoak zabaltzen ditu hiriaz nekatu den hiritarrak amestutako irudi faltsua balitz bezala.

Solasaldia Claire Simon-ekin

17:00 – Gola Aretoa

TY

Ten Years Older 1. Programa / Gizakiaren adinak (104')

Sei film laburrek film bakar eta bikaina osatzen dute, gizakia haietan zehar hazten da, kronologikoki garatuz jaiotzen denetik 90 urte bete arte.

WINDOW WATER BABY MOVING

Stan Brakhage-rena. 1959. 12'

Brakhage-k 400 film egin zituen eta bere hainbat seme-alaben erditzeak ere filmatu zituen. Hau da horietako lehenengoa, Jane bere lehenengo emaztearekin eta etxean bertan filmatua. Munduaren jatorria inolako oztoporik gabe ospatzen duen haragi, odol eta urezko banketea.

NUEVA VIDA

Kiro Russo-rena. 2015. 15'

Lehenengo zizakadurak. Haurra bere aitaren ondoan haziz doa. Guztia ikusten edo zelatatzen da aurreko leihotik. Bikote bizilagunak haur jaio berria nola zaintzen, mimatzen eta lehenengo mehatxuetatik babesten duen ikusten dugu. Film ederra sehaska-kantaren itxurarekin.

TEN MINUTES OLDER

Herz Frank-ena. 1978. 10'

Haurtzaroa. Maisutasun handiko film labur historikoa, txotxongiloen emanaldiari begira liluraturik dagoen haur baten aurpegian plano finkoa mantentzearen erradikaltasunarekin. Obra haurraren aurpegiko islen bitartez jarraitzen dugu: beldurra, alaitasuna, zalantza eta zoriona, dena sartzen da bere begiradan, film honekin hamar minutu zahartzen dena.

SEVEN WOMEN AT DIFFERENT AGES

Krzysztof Kieslowski-rena. 1978. 15'

Haurtzarotik zahartzarora, pausoz pauso adin desberdinetako zazpi emakumeren bitartez dantza-tailer batean. Kieslowski maisua haiekin batera hazten da, hasiberri baten lehenengo pausotatik nerabezaragoa denean duen erabateko kontrolera. Ondoren, segidako adinetan agertzen diren nekeak, ametsak eta minantzak. Denboraren joana dantza zirkular batean bezala.

10

Marta Jurkiewicz-ena. 2015. 30'

Adinetik adinera. Talking heads-arekin baino hearing heads-arekin gehiago egindako dokumentala. Aurpegi mutuek haiek baino hamar urte zaharragoa den norbaiten ahotsa entzuten dute eta, horrela, etengabe, errelebu pasatzen dute katean 10 urtetik 10 urtera hazten doan film batean. Baina zer gertatuko da norbait hiltzen bada? Nork kontatuko du haren istorioa? Eta nork entzungo du?

INVISIBLE

Zofia Pregowska-rena. 2014. 22'

Amaierako adina. 90 urte, zifra biribila, are gehiago Krystyna bezala iritsita, alegia, poesian fede osoa duela. Krystyna batzuetan berak bakarrik ulertzen dituen poemak iluntasunean idazten dituen adineko poloniar bat da, ikusmena galduz, markatzen ez duen boligrafoarekin, bertekotasuna sinbolizatzen duen klarionezko zakur bati buruz hitz egiten duten bertsoak.

17:00 – Corona Aretoa

PO

Pollet. Etxea eta mundua: 1. Emanaldia

I. Ihesa / Memoria metatua

Méditerranée 35.000 kilometroko poema da, eta irudiak trukatuz Mediterraneo, hango errituak eta espazioak, memoria,... definitu nahi ditu. Irudi guztien erdi-erdian tenplu bat aurkitzen da: Bassae.

BASSAE

Jean-Daniel Pollet-ena. Frantzia, 1964. 8'

MÉDITERRANÉE

Jean-Daniel Pollet-ena. Frantzia, 1963. 42'

Boris Pollet bertan izanik

20:30 – Ganbera Aretoa

TY

INAUGURAZIOA

Ten Years Older: Atarikoa

IL PIANETA AZZURRO

Franco Piavoli-rena Italia, 1982. 83'

Zuhaitz bat landatzeko gogoarekin ateratzen zara filma ikustetik; zinez egokia Punto de Vista-ren kronometroa abian jartzeko. Ermanno Olmi-k goraiatua, Bertolucci-k goretsia, Tarkovski-k "Disney-ren aurkako olerkia" deitzen zion. Franco Piavoli italiarraren El planeta azul film ospetsua denboran zehar, bere ikuskera puruenean, egindako ospatzeko bidaia bat da, natura eta paisaia estasi aldakor betean direla, elkarriketarik gabe, arnasketa bakar Ennio Morricone-ren musika ikusgarriena duela. Bizitzaren ospakizuna bizi garen planetan.



Otsailak 9, Asteartea

10:00 – Ganbera Aretoa

SO PA

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia (97')

LAMPEDUSA IN WINTER

Jakob Brossmann-ena. Erresuma Batua, 2015. 93'

Irla italiar txiki bat Mediterraneoan, gaur egungo dramaren agertoki eta erretratu. Turistek uda igarotzean irla uzten dutenean, beste mota bateko bisitariak iristen dira irlara monumentuak ikusteko eta bertako hondartzez gozatzeko batere asmorik gabe. Milaka errefuxiatu afrikar lur zati horretan lehorreratzten dira eta amets europarreranzko bidaiak luze horretan lehenengo hondoratzea bizitzen dute. Bien bitartean, iriak bere pultsuari jarraitzen dio eta bertako arrantzaleek egindako harri-paketei irteera emango dien ferry berri bat eskatzeko greba bat antolatzen dute. Negua da Lampedusan.

Saioaren hasieran Siriako *The Long Road* film laburra aurkeztuko da

12:30 – Ganbera Aretoa

SO PA

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia (94')

THE DEATH OF J.P. CUENCA

João Paulo Cuenca-rena. Brasil, 2015. 90'

Autobiografia bat egin al daiteke norbere heriotza ere sartuta? Hori da João Paulo Cuenca idazle eta zinemagile brasildarrak proposatzen digun jokoak. Behartuta sartu zen joko horretan 2008an bere nortasuna zuen norbait hil zenaren berri harrigarria jaso zuenean. Hemen berpizteak alderantziz funtzionatzen du: norbaitek bizi den pertsona baten izena lapurtzen du haren ordeztu hiltzeko, baina nor da pertsona hori? Cuenca-k, orduan, polizia-bilaketari ekiten dio, non, bera izango den bere buruaren detektibea.

Saioaren hasieran Siriako *Barriers of Separation* film laburra aurkeztuko da

17:00 – Ganbera Aretoa

SO

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia (120')

OLEG Y LAS RARAS ARTES

Andrés Duque-rena. Espainia, 2016. 70'

Andrés Duque katua Iván Zulueta-rena hurbildu zen pauso isil berdinekin hurbiltzen da Oleg Karavaichuk-engan. Orain erretratatzeko dena Oleg K. da, 89 urte izanik, oraindik, kultura errusiarrarentzako eta, are gehiago, nazioartekoarentzako, figura enigmatiko izaten jarraitzen duen musikaria. Oleg Ermitage-n gordetako piano inperial handia museoa ixten den egunetan jotzeko pribilegio historikoa duen bakarra da. Baina badu egungoagoa den pribilegio bat ere: bere artearekin bere herrialdearen nortasuna egunero desafiatzeko pribilegioa, uneoro eraldatuz eta berrasmatuz.

CANTONESE RICE

Mia Ma-ren. Frantzia, 2015. 50'

Atzerrian dagoen familia txinatar baten etxean eta intimitatean –erre-serbatuena eta hermetikoena izan ohi den immigrazioetako bat– sartzeko pribilegioa. Adopzio-herrialdeko gazta, ez, ordea, hizkuntza, oso gustuko duen amona kantondarra sarritan herrialde berria gogoko ez duen aita batekin. Egokitzapena, kasu honetan, Frantziara egokitzea, txinatarrez hitz egiten ez duen protagonista baten begi luzangatetik ikusita. Guztia saiakera moduan, umorearekin eta paradoxa handiarekin, alegia, jatorriko herrialdea nola bilatu immigrazioko kideen bitartez.

Andrés Duque eta Mia Ma bertan izanik

17:00 – Gola Aretoa

TY

Ten Years Older 2. programa / Garai modernoak (93')

Bederatzi film labur oso laburrek denborarekin jolasten dute zinemako armarik modernoenez baliatuz: azeleratua, *timelapse*, esposizio bikoitza, teilakatuak, errepikapena, elipsia, birbobinatzeak eta gainerako flashback-ak. Benetako oraina moldatzea eta, horrela, zinemaren berezko denbora sortzea xede duten efektuak.

LIKE A PASSING TRAIN 2

Kohei Ando-rena. 1978, 7'

Etxe baten aurretik igarotzen den tren bati buruzko time lapse-a, leiho batetik ikusia, egunero, gau osoan, urtaro guztietan. Eta trenbidea zeharkatu aurretik trenbide-pasagunean zain dagoen haur bat, geldirik eta zintzo, euria, elurra nahiz eguzkia egin.

UN RELATIF HORAIRE

Yo Ota-rena. 1980, 2'

Paisaiaren gain *fast forward*-a aplikatzen maisua; errealizadore japoniarrak ordutegi-doikuntza berri honetan gauean zeharreko bidaiaria limurtzailea aurkezten du. Paris da, hiri guztia mugitu eta ibili egiten da, ilargia izan ezik.

HUS

Inger Lise Hansen-ena. 1998, 7'30"

Kamera segundo gutxi batzuen buruan zurezko etxolak suntsitzen dituen termita bailitzan, bizitza errealean betiereko beharko lukeena. Denbora unera menpekoturik.

GHOSTS BEFORE BREAKFAST

Hans Richter-ena. 1927-1928. 7'

Richter eta zinema erritmo optiko gisa. Hemen, errepikapenez, esposizio bikoitzaz eta hirukoitzaz baliatzen da naziek mutu utzi zuten film honetan, non denbora denbora, denbora eta denbora den.

PICCOLO FILM DECOMPOSTO

Paolo Gioli-rena. 1986. 18'

Marey, Muybridge eta Warhol-en Marilyn-en fotogrametara beste bisita bat egiten du haiei tempo zinematografiko berri bat emateko, birdoitutako mugimenduan oinarritua. Denbora ilusio faltsu gisa.

RITUAL IN TRANSFIGURED TIME

Maya Deren-ena. 1946. 16'

Slow motion eta birbobinatzeak, itxuraldatutako denbora zinemagile ukrainarraren film-koreografia eder honetan. Kamera gizarte-bazterketatik ihes egiten duten pertsonaiekin dantzan dabil.

TWO TIMES IN ONE SPACE

Ivan Ladislav Galeta-rena . 1976-1984, 12'

Nikola Stojanovic-en *In the kitchen* filmaren proiektzio bikoitz teilakatuak, batetik bestera 9 segundoko desfasearekin, bitan banatutako denbora irreal sortzen du eta hirugarren film bat, desberdina eta berria, sortarazten du.

PIÈCE TOUCHÉE

Martin Arnold-ena. 1989, 15'

18 segundo irauten duen film klasiko batean (*The Human Jungle*) eszena bitarte sinkopatueta errepikatzen da eta 15 minututik gorako iraupena ematen dio eta, baita, argumentu berri bat ere: bikote bat desadostasunean. Arnold Hollywood-eko denboraren kontrako mendeku pertsonalean.

LUUKKAANKANGAS, UPDATED, REVISITED

Dariusz Krezeczek-ena. 2004, 8'

Kameren bideo-zaintza autopistetan, asfaltoa zeharkatzen duen bakarra denbora, eguzkia edo elurra denean, baina, inoiz ez trafikoa. Kadentzia hutsarte gisa.

17:00 – Corona Aretoa

PO

Pollet. Etxea eta mundua: 2. Emanaldia

II. Itxialdia / Eritasuna eta irla

Eskizofrenia eta legenarra filmatzea. Ispiluko bi pelikula, laborategi farmazeutiko berak enkargatuak. Pollet-ek bi pelikula horien bitartez errealitatea eta fikzioa elkarren aurka jartzeko diptikoa sortuko du, irla gordeleku bezala hartuko du eta edertasunaren eta justiziaren kontzeptuak lekuz aldatuko ditu.

LE HORLA

Jean-Daniel Pollet-ena. Frantzia, 1966. 36'

L'ORDRE

Jean-Daniel Pollet-ena. Frantzia, 1974. 42'

20:00 – Ganbera Aretoa

TY

Ten Years Older / Epilogo, Pio Caro Barojari omenaldia (84')

PIO CARO BAROJA, ELKARRIZKETA

2005. 18'

Duela 10 urte egin zen *Guipúzcoa* (1980) bere filmaren berredizioa zela eta. Lekukotza gisako azalpen txiki honek omenduaren irudia azaltzen digu eta dokumentu bakar eta argitaratu gabeen finkatzen. Beran, Pio zinemagilea da, Itzea etxetzarrean erretratatu, maitekorra eta onbera, gorputz eta arima lan horretan aritu zena.

NAVARRA, CUATRO ESTACIONES: OTOÑO/ UDAZKENA

Pio Caro Baroja-rena. Espainia, 1971. 27'

Hirugarren urtaroa, lehenengo hotzen paisaiari dedikatua. Julio Caro Barojaren hitzekin, dokumentala ordu erdiko bidaia kronologikoa da, basoa gorritzen den eta airea ehizaz betetzen den urte-saso horretako erritoetan, baserriko lanetan eta jaietan barrena.

NAVARRA, CUATRO ESTACIONES: INVIERNO / NEGUA

Pio Caro Baroja-rena. Espainia, 1971. 39'

Zenbatek ezagutzen dute Urdaingo tradizioa? Hau bezain ezagunak ez diren altxor etnografikoak eta horiekin batera abesten diren kantu ederrak Invierno (Negua) izeneko kapituluan erregistratzen dira, Barojatarekin gure Komunitateari eta errituzko paisaiari urtaroz urtaro eskaintzen diotena. Kasu honetan, hotzaren desfileak joaldunekin eta zanpantzarrekin jarraitzen du Iturenen eta Zubietan, Lesakako Olentzerorekin eta zintzarrien artisauekin Malerrekan eta Luzaideko eskalapoiekin.

Juan Antonio Urbeltz-ek egingo du aurkezpena eta pelikulen protagonistak bertan izango dira

20:00 – Gola Aretoa

TY

Ten Years Older 3. programa / Denbora gu gabe (71')

Aparteko hirukotea, Lemaitre, Loznitsa eta Frampton, beren txango filmiko bitxiekin, non bisita hirukoitza proposatzen diguten gizakiak denboraren gain duen ahalmena desagertzen den eta denbora lasai gogoak emanda bezala mugitzen den amildegira.

SIX FILMS INFINITESIMAU ET SUPERTEMPORELS

Maurice Lemaitre-rena. 1967-1975. 9'30"

Sortzen duten denbora propiotik kanpo existitzen ez duten filmak. Lemaitre berak Denborari buruzko zinema deitzen zion eta egin behar den film baten ideia gisa soilik aurkezten da: zinema imajinatutakoa izango da edo ez da izango. Ikusi aurretik ikuslearen buruan existituko duten filmen sei proiektu.

THE TRAIN STOP (L'ATTENTE)

Sergei Loznitsa-rena. 2000. 25'

Denborarik gabeko filma. Edota, denbora ezari buruzkoa. Hemen joko teknikoa plana etenaldi luzean uztea eta jardueraz hustea da. Errepi-katzea. Konstantzian 20 minututan zehar. Bidaiariak, lurrean, erdi lo itxoiten dute geltoki batean iristen ez den tren baten iritsiera. Horrela, itxaronaldia izango da protagonista bakarra eta, denbora, udako euli baten hegaldiaren soinuak soilik markatuko du edota atera irteten duen neguko haizeak.

(NOSTALGIA)

Hollis Frampton-ena. 1971. 36'

Nostalgia parentesi artean eta haren "denbora" kakotx artean. Frampton Michael Snow-ren ahotsaz baliatzen da bere oroitzapenak iraganeko argazkien bidez kontatzeko, su-txikian paperezko irudi bakoitza erre errautsetara murrizten den arte. Suak markatzen du kontaktaren luzera. Horrela, inongo irudiek ez haien oroitzapenak ezingo dute hura kontsumitzen duen sugarrak baino gehiago iraun. Zineman oroimenaren eta behin-behinekotasunaren metafora handia, ikusten dugun argazkiei buruz inoiz hitz egiten ez digun, baizik eta, agertuko den argazki bati edo jada desagertu den bati buruz hitz egiten digun, ahots baten disoziazioak sendotuta, guztiari aurrerapen-errezitalaren kutsua emanez edota, alderantzizkoarena, hots, oroipenarena.

20:00 – Corona Aretoa

PO

Pollet. Etxea eta mundua: 3. Emanaldia

III. Keinuak / Suarekin ez da jolasten

Urari buruzko pelikula suari buruzkoaren aurka. Fabrika-itsasontzien agerraldiari buruzko filma, leviatan itsasontziena, ehun urtetik gorako fabriken desagerpenari buruzko filmaren aurrean, mitologia klasikoaren eta zientzia-fikziozkoen artean jarrita.

LES MORUTIERS

Jean-Daniel Pollet-ena. Frantzia, 1966. 20'

POUR MÉMOIRE

Jean-Daniel Pollet-ena. Frantzia, 1979. 58'

22:30 – Ganbera Aretoa

SO

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia

LAS LETRAS

Pablo Chavarría-rena. Mexiko, 2015. 77'

Pablo Chavarriak bere bosgarren filmean erreala denaren muga aukatzen du Chiapasen argitu gabeko epaiketa baten inguruan bidaia sensorial eta saiheskorra proposatzeko. 2000. urteko ekainean, lau polizia erailda agertzen dira. Alberto Patishán eskualde mexikarreko irakasle eta aktibista 60 urteko kartzela-zigorrrera kondenatzen dute gertaera horrengatik. Tartean behin, bere seme-alabei idazten dizkien gutunak entzuten ditugu: "Itxaropena denborarekin egindako kontratu inozoa da" idazten die. Batere argia ez den justizia eta indarkeria, hura arrakastarik gabe saihesten saiatu den herrialde batean, filmatzeko modurik onena abstrakzioa eta hipnosia dira.

22:30 – Gola Aretoa

TY

Ten Years Older 1. Programa / Gizakiaren adinak (104')

Sei film laburrek film bakar eta bikaina osatzen dute, gizakia haietan zehar hazten da, kronologikoki garatuz jaiotzen denetik 90 urte bete arte.

WINDOW WATER BABY MOVING

Stan Brakhage-rena. 1959. 12'

Brakhage-k 400 film egin zituen eta bere hainbat seme-alaben erditzeak ere filmatu zituen. Hau da horietako lehenengoa, Jane bere lehenengo emaztearekin eta etxean bertan filmatua. Munduaren jatorria inolako oztoporik gabe ospatzen duen haragi, odol eta urezko banketea.

NUEVA VIDA

Kiro Russo-rena. 2015. 15'

Lehenengo zizakadurak. Haurra bere aitaren ondoan haziz doa. Guztia ikusten edo zelatatzen da aurreko leihotik. Bikote bizilagunak haur jaio berria nola zaintzen, mimatzen eta lehenengo mehatxuetatik babesten duen ikusten dugu. Film ederra sehaska-kantaren itxurarekin.

TEN MINUTES OLDER

Herz Frank-ena. 1978. 10'

Haurtzaroa. Maisutasun handiko film labur historikoa, txotxongiloen emanaldiari begira liluraturik dagoen haur baten aurpegian plano finkoa mantentzearen erradikaltasunarekin. Obra haurraren aurpegiko islen bitartez jarraitzen dugu: beldurra, alaitasuna, zalantza eta zoriona, dena sartzen da bere begiradan, film honekin hamar minutu zahartzen dena.

SEVEN WOMEN AT DIFFERENT AGES

Krzysztof Kieslowski-rena. 1978. 15'

Hautzarotik zahartzarora, pausoz pauso adin desberdinetako zazpi emakumeren bitartez dantza-tailer batean. Kieslowski maisua haiekin batera hazten da, hasiberri baten lehenengo pausoetatik nerabezaragoa denean duen erabateko kontrolera. Ondoren, segidako adinetan agertzen diren nekeak, ametsak eta minantzak. Denboraren joana dantza zirkular batean bezala.

10

Marta Jurkiewicz-ena. 2015. 30'

Adinetik adinera. Talking heads-arekin baino hearing heads-arekin gehiago egindako dokumentala. Aurpegi mutuek haiek baino hamar urte zaharragoa den norbaiten ahotsa entzuten dute eta, horrela, etengabe, errelebua pasatzen dute katean 10 urtetik 10 urtera hazten doan film batean. Baina zer gertatuko da norbait hiltzen bada? Nork kontatuko du haren istorioa? Eta nork entzungo du?

INVISIBLE

Zofia Pregowska-rena. 2014. 22'

Amailerako adina. 90 urte, zifra biribila, are gehiago Krystyna bezala iritsita, alegia, poesian fede osoa duela. Krystyna batzuetan berak bakarrik ulertzen dituen poemak iluntasunean idazten dituen adineko poloniar bat da, ikusmena galduz, markatzen ez duen boligrafoarekin, betierekotasuna sinbolizatzen duen klarionezko zakur bati buruz hitz egiten duten bertsoak.

22:30 – Corona Aretoa

PO

Pollet. Etxea eta mundua: 1. Emanaldia

I. Ihesa | Memoria metatua

Méditerranée 35.000 kilometroko poema da, eta irudiak trukatuz Mediterraneo, hango errituak eta espazioak, memoria,... definitu nahi ditu. Irudi guztien erdi-erdian tenplu bat aurkitzen da: Bassae.

BASSAE

Jean-Daniel Pollet-ena. Frantzia, 1964. 8'

MÉDITERRANÉE

Jean-Daniel Pollet-ena. Frantzia, 1963. 42'



10:00 – Ganbera Aretoa

SO PA

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia

BELLA E PERDUTA

Pietro Marcello-rena. Italia, 2015. 87'

Pulcinella, herri-tradizio napolitarreko pertsonaia eta bizirik daudenen eta hildakoen arteko loturatzat balio duena, Italia hegoaldera itzultzen da misio berri batekin: bufalo gazte bat salbatu eta iparraldera eraman nahi duen baserritar baten azken nahia betetzea. Gizonak eta piztiak, orduan, bidaiari ekiten diote Italia eder eta galdu horretan barrena; kobazulo etruskoak, heriotzaren zuhaitzak eta aurri-egoeran dauden jau-regietatik igaroko dira.

Saioaren hasieran Siriako *Dreams Without Borders* film laburra aurkeztuko da

12:30 – Ganbera Aretoa

SO PA

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia

CASA BLANCA

Aleksandra Maciuszek-ena. Polonia, 2015. 62'

Casa Blanca, kasu honetan, Habanako Golkoko herri arrantzale txiki baten izena da. Han bizi dira zorrotza bezain poetikoa den film honetako bi protagonistak: Nelsa eta Vladimir, ama-semeak; ama adineko emakumea eta semea, berriz, down sindromearekin. Bata zein bestea ez dira beren kabuz beren buruak gobernatzeko gai, baina, elkarrekin, euren bizitzekin aurrera jarraitzeko makinaria bikaina osatzen dute. Bizimodu soilak, murmurioz eta laztanez beteak, baina, baita, urruntzeko mehatxupean daudenak ere. Elkarrekin partekatzen dute ohea, Kubako kantoi batean, euren ametsen errege diren lekuan.

Saioaren hasieran Siriako *Another Kind of Girl* film laburra aurkeztuko da

17:00 – Ganbera Aretoa

TY

Ten Years Older 5. programa / Lehenaldi konposatua (91')

Found footage-ko bi ariketa, lehenaldia irudi zaharrez eta hizkuntza berriaz osatua. Batetik, Maroko, bere artxibo historikoan birbisitatua oroimenari buruzko bertsoen bidez; eta, bestetik, denboraren joanaren ondorioz hondatutako filmen hondoak, hain zuzen, hondamen hori nabarmentzea xede duen erreskatatzeko ahaleginean. Saioa zuri-beltzean, zeinak, era berean, lehenaldi hondatu hori azaltzen duen.

MÉMOIRE 14

Ahmed Bouanani-rena. 1971. 24'

Artxiboa norbere eremura eramanda, lehenaldia, oraingoan, oroimenaren bertsoez osatua Ahmed Bouanani zinemagileak berak izenpetutako denborari eta gure ahazteei buruzko olerki eder batean. Irudiek duela mende bateko (1912tik 1953ra) Marokora eramaten gaituzte, protektoratu frantziarra, Rifeko gerra, meatzariak, iruleak, haizea eta Chaouen-go kaleen magiari buruzko artxiboko eszenekin. Beste aldetik begiratze duten aurpegiak.

DECASIA

Bill Morrison-ena. 2002. 67'

Bill Morrison egoerarik okerrean zeuden film zaharretako materiala biltzera dedikatu zen eta denboraren atzaparkada eder horiek eskaintzen dizkigu negatiboen gain zi(s)nemaren abestia bailitzan. Gainerako filmak abandonuaren bankete, hondamenaren ospakizun dira eta gainbehera dute bertute, galtzeko arriskuan dagoen filma balitz bezala aurkezten den filmean.

17:00 – Gola Aretoa

SO

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia

LAMPEDUSA IN WINTER

Jakob Brossmann-ena. Erresuma Batua, 2015. 93'

Irla italiar txiki bat Mediterraneoan, gaur egungo dramaren agertoki eta erretratu. Turistek uda igarotzean irla uzten dutenean, beste mota bateko bisitariak iristen dira irlara monumentuak ikusteko eta bertako hondartzez gozatzeko batere asmorik gabe. Milaka errefuxiatu afrikar lur zati horretan lehorreratzten dira eta amets europarreranzko bidaia luze horretan lehenengo hondoratzea bizitzen dute. Bien bitartean, irlak bere pulsuari jarraitzen dio eta bertako arrantzaleek egindako harra-paketei irteera emango dien ferry berri bat eskatzeko greba bat antolatzen dute. Negua da Lampedusan.

17:00 – Corona Aretoa

PO

Pollet. Etxea eta mundua: 4. Emanaldia

IV. Testamentua / Denboraren errepikapena

CONTRETEMPS

Jean-Daniel Pollet-ena. Frantzia, 1988. 100'

Contretemps, testamentu-pelikula moduan sortua da. Pollet-en obra aukera berrietara zuzentzen du: bidaia mugiezin berri bati ekinez, zinemagilea bere filmografia aztertzen eta berriz hausnartzen hasiko da muntatze-mahaian, eta aurreko irudi guztiak esanahi berriko lan-material bihurtuko dira, etengabeko metamorfosian.

Boris Pollet bertan izanik

19:00 – Bulevar Aretoa

EV

EL

ZINEMA MARTXAN / CINE EN CURSO

“Zinema martxan” zinemaren eta zinemarekin lantzeko pedagogia-programa gisa definitzen da, eta, era horretan, bi helburu ditu: haur eta gazteek zinema artea eta kultura bezala ezagutzea bultzatzea eta zinemaren gaitasun pedagogikoak haur, lehen eta bigarren hezkuntzan garatzea. 2005. urteaz geroztik, proiektuari esker, zinema geletan sartzen da zinemagileek eta irakasleek elkarrekin egindako lanaren bitartez, eskola-orduen barruan eta irakasgai ezberdinekin lotuta. Tailerrak Lehen Hezkuntzako 5. mailatik hasi eta Batxilergoko 2. mailara bitarteko ikasleekin garatzen dira, eta ikasleek prozesu guztiak egiten dituzte, gidoitik hasi eta muntaketara bitarte, beti elkarrekin lan eginaz.

Nuria Aidelman bertan izanik

20:00 – Ganbera Aretoa

SB

Saio bereziak: Luis Ospina

TODO COMENZO POR EL FIN

Luis Ospina-rena. Kolonbia, 2015. 208'

Ospinaren azken lan luzea susperraldi bikoitz baten lekukotza da, zinegilearena berarena, osasunez larri ibili baitzen bolada batez, eta bere zinema taldearena, Caliko Caliwood izenaz ezaguna zen taldearena, alegia: lagun zinemazale porrokatu batzuk elkartu, eta dagoeneko Kolonbiako zinemaren historiaren parte diren zenbait lan zinematografiko ekoiztea lortu zuten.

Solasaldia Luis Ospinarekin

20:00 – Gola Aretoa

MA

Heterodoksiak. Maenza existitzen da! (137')

EL LOBBY CONTRA EL CORDERO

José Antonio Maenza-rena. Espainia, 1967-1968. 101'

Zaragoza 1968. Aktore bat kaleetan zehar dabil esku batean lotuta arkume batekin eta bestean liburu bat duela, hots, Herbert Marcuse-ren *L' uomo a una dimensione*; ez dakigu bietako zeinek probokatzen dituen gehiago oi- nezkoak. Beste behin, pelikula hitzordu-etxe bat da, Rimbaud-i eskainia eta handelekia bezala aurkeztua. Pantailan, Nietzsche, Durrel eta Lezama Lima- ren hitzak irakurtzen ditugu. Gidoia zuzenean irakurtzeko pentsatuta dago, eta metazine erakoa da filmaren beraren aipamenekin ("Filma pelikula hel- dugabea da, burutu gabeko hilketa ugarik osatzen baitute"); halaber, film manifestua ("Espainia ehungintzako langilerik gabeko herrialdea da, soilik usain oneko modeloena, herrialde konplexua").

ORFEO FILMANDO EN EL CAMPO DE BATALLA

José Antonio Maenza-rena. Espainia, 1968. 36'

Valentzia, 1968. urtean baita ere. Gidoia Eduardo Hervas poetarekin batera egin zuen. Irudiak konexiorik gabe eta asaldatuta agertu arren, dagoeneko irudi iraunkor batzuk ikus daitezke Maenzaren zineman: ibiltari eta oinezko anonimoen hiriko irudiak kanpoaldean, *happening* arma bezala eta mise- en-scene; beti agertuko da idatzitako hitza pankarta edo arbeletan, eta, guz- tiaren amaieran, askatzaileen orgia-bilera itxitako espazioan. Koltxoia eta arbela iraultzarako oinarritzko tresnak dira, bata gorputza askatzeko eta bestea masak askatzeko.

Saioan zuzeneko irakurketa dramatizatua egingo da

20:00 – Corona Aretoa

SO

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia

THE DEATH OF J.P. CUENCA

João Paulo Cuenca-rena. Brasil, 2015. 90'

Autobiografia bat egin al daiteke norbere heriotza ere sartuta? Hori da João Paulo Cuenca idazle eta zinemagile brasildarrak proposatzen digun jokoak. Behartuta sartu zen joko horretan 2008an bere nortasuna zuen norbait hil zenaren berri harrigarria jaso zuenean. Hemen berpizteak alderantziz funtzionatzen du: norbaitek bizi den pertsona baten izena lapurtzen du haren ordeztzeko, baina nor da pertsona hori? Cuenca-k, orduan, polizia-bilaketari ekiten dio, non, bera izango den bere buruaren detektibea.

João Paulo Cuenca bertan izanik

22:30 – Gola Aretoa

TY

Ten Years Older 4. programa / Erlojua desmuntatzea (48')

Dozena bat pieza laburrek, guztien artean, ordubeteko iraupena dute, erloju baten orratzetan hamabi orduak balira bezala. Saio hau bisitatzea amaierara iristera goazen heinean minututan hazten doan kronometro batera joatea bezalakoa da. Ezerezetik betierekotasuneko segundo batera, 10 segundotatik minutu bateko 60ra, beti ere, film batek hitz egin nahi digun horretaz hitz egiteko, ospez, purutasunaz, koadro-bilduma batez, arteak dituen arriskuez edo haren laburtasunaz, zenbat denbora beharko duen zalantzarekin.

UTS CERO

Javier Aguirrerena. 1970. 10'

Erlojua martxan jarri aurretik hau besterik ez dago: ezereza, zeroa, uts euskaraz. Zenbakiak existitzen ez duten unea eta pantailak zuri, garbi, mutu eta hutsik dirauen unea.

UNE SECONDE D'ÉTERNITÉ

Marcel Broodthaers-ena. 1970. 1''

Film bat bere gutxienezko adierazpena murriztuta, segundo magiko hori osatzen duten 24 fotograma, artista belgikar ezagunaren inizialen hizkiak osatzeko aski dena, hots: MB. Betierekotasun laburtua.

TEN SECOND FILM

Bruce Conner. 1970. 10''

10 segundo eskasetan osatzen den filma, atzerako kontaketa hasten denetik The end kartela agertzen den arte.

60 SECONDS

Christoph Girardet-ena. 2002. 1'

Film desberdinetan agertzen diren erlojuetatik hartutako minutuaren gorespena, bere raccord-ari leial igarotzen den denbora.



UNE MINUTE VINGT-NEUF DE PEINTURE

Denis Rousseau-Kaplan-ena. 1984. 1' 29"

Arte piktoriko garaikidearen laburpen azkarra frame bidez. Kubismotik abstrakziora, aitaren batean.

DEUX MINUTES CINQUANTE SECONDES

Joël Ducorroy-rena. 1981. 2' 50"

Parisko metroa, filmak Bir-Hakeim eta Passy geltokien arteko ibilbideak duen iraupena neurtzen du. Denbora mekanikoa eta ohikoa.

5 MINUTES DE CINEMA PUR

Henri Chomette-rena. 1925. 5'

Iraupen biribila zinemak bere purutasuna erdietsi dezan, bere argien eta geometrien festarekin. 5 minutu, ez gehiago ez gutxiago.

57,600 SECONDS OF INVISIBLE NIGHT AND LIGHT

Flatform-ena. 2009. 5' 25"

Milaka segundo beren denboraren jabe direnek hiriko kantoi batean gora eta behera eginda.

24 FRAMES PER SECOND

Takahiko Ilmura-rena. 1975-1978/2007. 10'35"

Zinemako denbora neurtzea, kasu honetan, mikroskopia bidez. Frame-aren erradiografia eta azterketa xehatua, negatiboa tik-tak gisa arrastatuz.

RESTORING THE APPEARANCE TO ORDER IN 12 MINUTES

Coleen Fitzgibbon-ena. 1975. 10'30"

Kronometroko azken filma eta hasierako zurira itzulera. *Uts Cero* filmean bezala, hemen ere, pantailak hutsera bidaiatzen du galdutako denbora berreskuratzeko.

22:30 – Corona Aretoa

PO

Pollet. Etxea eta mundua: 5. Emanaldia

IV. Testamentua / Denboraren errepikapena

CEUX D'EN FACE

Jean-Daniel Pollet-ena. Frantzia, 2000. 85'

Pollet-en azkeneko fikziozko filma. *Ceux d'en face* Contretemps-ko autorretratu sortzailearen kontraplanoa da. Bertan, emakume batek, zinemagileak berak *Méditerranée*-etik egingo duen moduan, munduko irudiak berriz antolatzeari ekingo dio; horrela, faro-irudi gutxi batzue-tatik abiatuta antolatuko ditu, eta horien inguruan gainerakoak planeten gisa grabitatuko dute.



10:00 – Ganbera Aretoa

SO PA

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia

OLMO AND THE SEAGULL

Petra Costa-rena, Lea Glob-ena. Danimarka, Brasil, Portugal, Frantzia, Suedia, 2015. 85'

Olivieren buruan sartzen den bidaia, alegia, Chéjov-en *La Gaviota* entseatzen duen bitartean, harekin paralelo bere haurdunaldia aurrera daraman aktorea. Serge bere bizitza errealeko bikotekidea da eta oholitzen gainean ere paperak konpartitzen dituzte, antzetzutako bizitza eta bizitza erreala noiz hasten eta noiz bukatzen den, etxea non hasten den eta agertokia non ez dakigula. Haurraren izena Olmo izango da, eta, baita, bera zuhaitzak bezala erroak botatzera eta obraren hegaldia gelditzera, haurdunaldi zail baten ondoren Parisen igogailurik ez duen bosgarren solairuan immobilizatuta geratzean, behartuta ikusten denean sortzen den kontraesanarena ere.

Saioaren hasieran Siriako *Children* film laburra aurkeztuko da

10:30 – Bulevar Aretoa

MA EL

Heterodoksiak. Maenza existitzen da!

MATERIALISTA, IDEALISTA, CINEMATÓGRAFO, MAGNETÓFONO, BUEN CHICO Y SÁDICO

Carles Candela-rena. Espainia, 2016. 85'

Maenza definitzeko lau hitz, berak oso garai goiztiarrean (Maenza-k garai berantiarra izan bazuen, behintzat) erabiliak. Carles Candela zinemagile Valentziarrak primizian eskaintzen digun deskribapen filmiko interesgarri hau lau hitz horiekin hasten du. Dokumentala, zentzu guztietan, errebelazio bat da. Fisikoena, argazki-laboregiko azpiletan errebelatzen den Maenza-ren aurpegi berria ikusten baitugu, nolabait esateko, positiborantz irtenez. Era berean, azken egunetako Maenza-ren errebelazioa ere bada, gizatiarra eta pertsona, artista hurbilgaitza gainetik kentzen zuena, mutil jatorra, batez ere, izenburukoa. Guztia Oswald Muñoz edo Vicente Molina Foix gisa ezagutu zutenen ezin ordainduko lekukotzen bitartez ikusia, eta bilaketen, baztertezen eta meta zinema bikainen uneeekin, filmoteketan eta estudioetan, galdutako edo hondatutako materiala berreskuratuz, kantoiak berriro errebelatuz, negatiboa mobiolan geldituz “hori, hori da Maenza” adierazteko.

Carles Candela bertan izanik

12:30 – Ganbera Aretoa

SO PA

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia (71')

THE TREE

Roya Eshraghi-rena. Kuba, Costa Rica, 2015. 13'

Zuhaitza airean hazi al daiteke lurrean sustraiak bota gabe? Galdera bitxi hori izango du euskarri film labur honetan Roya Eshraghi gazte irandarrak idazten duen olerkiak Habanan paseatzen ari zela bitxia bezain ahaltsua den irudia aurkitzean, alegia, aurri-egoeran dagoen eraikin bateko bosgarren solairuan bakarrean hazten den zuhaitz bat. Orduan, filma bere aitari idatzitako gutun eder eta berak jasaten duen deserrotzearen laburpen bilakatzen da, hirian, urrunean, zerutik elikatzen den zuhaitz baten irudi.

AMONG US

Guido Hendrikx-ena. Herbehereak, 2014. 23'

Film labur ausarta Herbehereetako hiru pedofiloren buruan sartzen dena: Kasper izeneko ikasle bat, Hugo izeneko idazle gazte bat eta Ben izeneko 44 urteko finantza-aholkularia. Guido Hendrikx zuzendari gazteak maisutasun handiz ukitzen du gai arantzatsu hau, izenburuak adierazten duen gisan, inguratzen gaituen eta bizilagun dugun gaia. 24 minututan, funtsezko galderak hauek sartzen dira: Nola eramaten da horrelako gatazka bat buruan? Inguruak zenbateko eragina du joera horietan? Eta zenbateko tartea aitormenaren eta ulermenaren artean?

THE FACTORY OF THE WORLD

Minna Rainio-rena, Mark Roberts-ena. Finlandia, 2014. 8'

Finlandiako lantegi bat Txinan birkokatzea da artista bikote honek film labur baten bidez erreakzionatzea eragin duen agertokia; begiratu batezko soiltasunean adimena eta salaketa sakona ezkututzen ditu. European hutsik geratu ziren lekuak ikusten ditugu. Txinatik lekualdatze horren arrazoiak zein izan diren dioten ahotsak entzuten ditugu. Bereizte horretan dago gakoa: eskulan merkea, lan-baldintza gogorragoak eta hutsik geratzen den agertokia; bi munduren arteko zubia finkatzen du, gizakia bertatik igarotzen da bere handinahiarekin, aurrerapenarekin eta beste zorakeria batzuekin.

EXTREMOS

Juan Manuel Ferraro-rena, Federico Molentino-rena. Argentina, 2015. 27'

Soinu industrialak kantu tradizional indigenekin nahasturik; hori da munduaren amaierako bidaia oniriko honetan lantzen den alderdietako bat zuzendari argentinarren eskutik, horien artean, Federico Molentino eta Juan Manuel Ferraro. Irudiek parez parekoen bilaketarekin ere jolasten dute: selk' nam komunitatearen zuri-beltzeko artxibo bat proiektatuko da magikoki aurrerapenaren espazio berrietan. Guztia bizi izan ziren lurralde sakratuan gertatzen da. Horrela, arkudun ehiztariak eta belagileak "filmikoki" edukiontziekin, argi-dorreekin eta hiriko paisaiekin elkarbiziko dira galdutako geografia batean.

12:30 – Bulevar Aretoa

MA EL

Heterodoksiak: Maenza existitzen da!

MAENZAREN INGURUKO BEGIRADAK, ERRADIKAL LIBREA

Ahazturiko probintziaren gerraren oihua bezala, aurten Punto de Vistaren Heterodoksiak atala harridura-markarekin dator. Tarte honetan ohikoa den moduan, oihu egin behar da. Norbaiten izena oihukatu, erreklamatzeko eta argira ateratzeko aldera. Azkenaldian asko hitz egiten da Maenzaz, baina nazioarteko zine jaialdietan oraindik ez da atzera begirakorik antolatatu Berzosaren, Varcancel Medinaren eta espainiar zinemagileen atal berean, Heterodoksiak izeneko honetan, aurreko edizioetan oihukatutako beste izen batzuen parean.

Luis E. Pares-ek moderatutako mahai-ingurua; bertan izango dira, baita ere, Graciela de Torres, Javier Hernández, Alejo Lorén eta Vicente Molina Foix

17:00 – Ganbera Aretoa

SB

Saio bereziak: Michael Snow

LA RÉGION CENTRALE

Michael Snow-ena. Kanadan, 1971. 180'

La Région Centrale filmatzeko, Snow-k eskatu zion teknikari bati Montrealen kamera berezi bat fabrikatzeko, norabide guztietan mugi zitekeen gailu bat: horizontalean, bertikalean, alde batetik bestera edo espiralean. Pelikula mugimendu etengabea da espazioan zehar, eta erreferentziako koordinatu gisa erabiltzen den X-a, egonkortasuna ematen duena, noizean behin aldatzen da.

Michael Snow bertan izanik

17:00 – Gola Aretoa

TY

Ten Years Older 6. programa / Orainaldi jarraikorra (83')

Unearen ospakizuna, denboraren borondatezko luzapena bizi duten hiru film egungo unetik hasita, inoiz itzaltzen ez den suaren bitartez; inoiz amaitzen ez den denbora eta pausatutako betiereko uneak bizi dituen hiria.

THE SMOKE

Vladimir Perovic-ena. 2006. 26'

Montenegroko paisaia basatienean barrena noraezean dabilen jende barkartia filmatzen espezialista; bere filmetako protagonista beti gizakia zeruertzean izan ohi da. Zehazki, *The Smoke* heroien trilogia bateko hirugarren hanka da (berak horrela deitzen die kredituetan), mendietako kart-ak zeharkatzen dituzten Boka Kotorska-ko badia ederraren inguruan. Hirugarren heroi hau mendian gora doa aspaldiko bide beretik; urteko lau urtaroretan zehar berdin-berdin errepikatzen duen ekintza. Bere helburua beti berdina izango da: abandonatutako etxe batean suari piztuta eustea.

SUR LA PLAGÉ DE BELFAST

Henri-François Imbert-ena. 1996, 40'

Film hau opari bikoitzarekin hasten da. Lehenengoa errealizadorearen neskalagunak Belfasteko azoka txiki batean erositako kamera super8 zahar bat. Bigarren oparia, berriz, kamenaren barnean errebelatu gabeko film zahar bat ahaztuta utzita dagoela konturatzen direnean. Hor hasten da denborarekin jolasa, zinemagilea ahaztutako film horretako familia protagonista bilatzen saiatzen denean. Bilaketa ez da batere erraza izango. Hondartza batean oporretan dagoen familia baten plano batzuk eta etxeako eszena txiki batzuk baino ez daude. Baina hori guztiari nola eman orainaldi bat?

TIME PRESENT

Alfred Guzzetti-rena. 2013. 17'

Guzzetti-k, iraganeke argazkiak berpizten espezialistak, ahalik eta gehien moteldutako orainaldi bat eskaintzen digu, errealitatea ahalik eta gehien luzatzeko ariketa amaierarik eduki ez dezan. Metropoli handiko kaleetako iheskortasuna desagertu egiten da. Inork ez du korri egiten, denak airean daude eta Bostonek eta Manhattanek euren aurpegirik irrealena azaltzen dute, pausatutako betierekotasunaren tempo bat.

17:00 – Corona Aretoa

SO

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia

BELLA E PERDUTA

Pietro Marcello-rena. Italia, 2015. 87'

Pulcinella, herri-tradizio napolitarreko pertsonaia eta bizirik daudenen eta hildakoen arteko loturatzat balio duena, Italia hegoaldera itzultzen da misio berri batekin: bufalo gazte bat salbatu eta iparraldera eraman nahi duen baserritar baten azken nahia betetzea. Gizonak eta piztiak, orduan, bidaiari ekiten diote Italia eder eta galdu horretan barrena; kobazulo etruskoak, heriotzaren zuhaitzak eta aurri-egoeran dauden jau-regietatik igaroko dira.

20:00 – Gola Aretoa

MA

Heterodoksiak. Maenza existitzen da!

HORTENSIA/BEANCE

José Antonio Maenza-rena. Espainia, 1969. 120'

Hasi baino lehen, ohar bat: hau ez da pelikula bat. Hau inoiz muntatu gabeko pelikularen kopia da. Are gehiago, Pere Portabellaren fitxategian oraindik gordeta dagoenaren lau orduko kopia-lanaren erdia da; gainera, mutu dago, soinurik gabe. Hori dela-eta, ikusteko esperientzia bakarra da. Eta oraindik ere gehiago Maenzarena bezalako kasuan, anabasa eta amaitu gabeko lanak hainbeste maite zituela ikusita. Orain, Bartzelonan gaude, hirurogeiko hamarkadaren amaiera aldera, Maenzaren hirugarren eta azken eraso filmikoa.

20:00 – Corona Aretoa

SO

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia

CASA BLANCA

Aleksandra Maciuszek-ena. Polonia, 2015. 62'

Casa Blanca, kasu honetan, Habanako Golkoko herri arrantzaletxiki baten izena da. Han bizi dira zorrotza bezain poetikoa den film honetako bi protagonistak: Nelsa eta Vladimir, ama-emeak; ama adineko emakumea eta semea, berriz, down sindromearekin. Bata zein bestea ez dira beren kabuz beren buruak gobernatzeko gai, baina, elkarrekin, euren bizitzekin aurrera jarraitzeko makinaria bikaina osatzen dute. Bizimodu soilak, murmurioz eta laztanez beteak, baina, baita, urruntzeko mehatxupean daudenak ere. Elkarrekin partekatzen dute ohea, Kubako kantoi batean, euren ametsen errege diren lekuan.

Aleksandra Maciuszek bertan izanik

20:30 – Bulevar Aretoa

EV EL

NAFARROA (1936-2016): IKUS-ENTZUNEZKO MEMORIA

1936ko uztaileko estatu-kolpeari (gerra zibilaren jatorria) buruzko pelikula oso ezberdinak tartekatuta sortutako ikus-entzunezko muntaketaren aurkezpena. 1936ko Nafarroak leherraraziko ditu gurutzatutako historia horiek; izan ere, Mola jeneralaren bandoa eta gero (*La conspiracion*), Elio-Bernal familia bezalako izenetan geratuko da, Iruñetik alde egin zuena zoritxarreko egun haietan (*En el balcon vacio*), edo beste episodio dramatikoetan; hots, Iruñako Virgilio Leret errepublikar kapitainaren hilketa Melillan (*El caballero del Azul*) edo Jose Rodriguez-Medel Guardia Zibil buruarena Nafarroan (*El primero de la lista*), errepublikar jarraitzailea.

Solasaldia Ramón Herrerarekin. Pamielak laster argitaratuko du Nafarroako Memoria Historikoari buruz egindako Ikus-entzunezko Hiztegia

22:30 – Ganbera Aretoa

SO

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia

OLMO AND THE SEAGULL

Petra Costa-rena, Lea Glob-ena. Danimarka, Brasil, Portugal, Frantzia, Suedia, 2015. 85'

Oliviaren buruan sartzen den bidaia, alegia, Chéjov-en *La Gaviota* entseatzeko duen bitartean, harekin paralelo bere haurdunaldia aurrera daraman aktorea. Serge bere bizitza errealeko bikotekidea da eta oholtzen gainean ere paperak konpartitzen dituzte, antzezutako bizitza eta bizitza erreala noiz hasten eta noiz bukatzen den, etxea non hasten den eta agertokia non ez dakigula. Haurraren izena Olmo izango da, eta, baita, bera zuhaitzak bezala erroak botatzera eta obraren hegaldia gelditzera, haurdunaldi zail baten ondoren Parisen igogailurik ez duen bosgarren solairuan immobilizatuta geratzean, behartuta ikusten denean sortzen den kontraesanarena ere.

22:30 – Gola Aretoa

TY

Ten Years Older 5. programa / Lehenaldi konposatua (91')

found footage-ko bi ariketa, lehenaldia irudi zaharrez eta hizkuntza berriaz osatua. Batetik, Maroko, bere artxibo historikoan birbisitatua oroimenari buruzko bertsoen bidez; eta, bestetik, denboraren joanaren ondorioz hondatutako filmen hondoak, hain zuzen, hondamen hori nabarmentzea xede duen erreskatatzeko ahaleginean. Saioa zuri-beltzean, zeinak, era berean, lehenaldi hondatu hori azaltzen duen.

MÉMOIRE 14

Ahmed Bouanani-rena. 1971. 24'

Artxiboa norbere eremura eramanda, lehenaldia, oraingoan, oroimenaren bertsoez osatua Ahmed Bouanani zinemagileak berak izenpetutako denborari eta gure ahazteei buruzko olerki eder batean. Irudiek duela mende bateko (1912tik 1953ra) Marokora eramaten gaituzte, protektoratu frantziarra, Rifeko gerra, meatzariak, iruleak, haizea eta Chaouen-go kaleen magiari buruzko artxiboko eszenekin. Beste aldetik begiratze duten aurpegiak.

DECASIA

Bill Morrison-ena. 2002. 67'

Bill Morrison egoerarik okerreanean zeuden film zaharretako materiala biltzera dedikatu zen eta denboraren atzaparkada eder horiek eskaintzen dizkigu negatiboen gain zi(s)nemaren abestia bailitzan. Gainerako filmak abandonuaren bankete, hondamenaren ospakizun dira eta gainbehera dute bertute, galtzeko arriskuan dagoen filma balitz bezala aurkezten den filmean.

22:30 – Corona Aretoa

PO

Pollet. Etxea eta mundua: 6. Emanaldia
V. Objektuak / Mundu isilaren bahituak

DIEU SAIT QUOI

Jean-Daniel Pollet-ena. Frantzia, 1994. 84'

1989. urtean, Pollet-ek tren-istripu larria izango du, eta bizi guztirako Probenzako etxaldean sartuta geratuko da. Bidaiatzeko gai ez denez, etxetik atera gabe, haren filmografia gorenera eramango duten esperimentu erabakigarriak garatuko ditu. Haren karrerako garrantzitsuenak eta lorpenik handienetarikoa Dieu sait quoi da, poesiaren egokitzapen zinematografikoa pentsatzeko funtsezko pelikula.

10:00 – Ganbera Aretoa

SO PA

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia

WRITING ON THE CITY

Keywan Karimi-rena. Iran, 2015. 60'

Teheranen horma-irudi eta pintada politikoaren erabileran zeharreko ibilbide historikoa saiakera formatuan. Film honen egileari bere herrialdean sei urteko kartzela-zigorra eta 223 zigorrarako kondena jarri diote. Keywan Karimi-k, bi gizonezko ahots eta emakumezko ahots baten bitartez, hiriburu irandarreko hormetan zeharreko bidaia batera gonbidatzen gaitu, horiek baitira ideia- eta adierazpen-askatasuna garatzeko leku bakarrak. Baita erregimenaren aldeko propaganda ere.

12:30 – Ganbera Aretoa

SO PA

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia (79')

THE PLACE

Julia Poplawska-rena. Polonia, 2015. 14'

Polonia edo munduak Polonia izena galtzen duen eta bere buruari lekua deitzen dion lekua. Herrialdeko lekurik garaienean dagoen lan-geltoki bat dela baino ez dakigu, zerutik zintzilikatutako lekua, mendietan, urrutikoaren eta abandonatutako gizakiaren hiriburua. Han bizi diren gizakiek ez dakigu zehazki zer egiten duten, baina zelatan dihardute, beren postuetan zaintzan gau eta egun, nahiz elurra nahiz kazkabarra egin, ihesbiderik ez duten lekuan, euren buruen baitan galduta dauden lekuan.

IF MAMA AIN'T HAPPY, NOBODY'S HAPPY

Mea de Jong-ena. Herbehereak, 2015. 24'

Ama batek eta bere alabak ispilu berdinari begiratzen diote: inongo gizonak ez dute euren bizitzan iraun eta rola aldatzen dituzte. Lehenengo batek egiten du aitormena eta, ondoren, besteak edukiaren ataltzat bere making-of-a gehitzen duen film batean; komedia faltako ez den emakume independenteari buruzko psikoanalisi da. Isiltasun handia. Filmak atzerago begiratzen du eta lau belaunalditan gauza bera gertatu zela konturatzen dira: etxe horretan gizonak ez zuten irauten, ez dute inoiz iraun. Amak harro kontatzen du, alabak, berriz, bere zalantzak ditu.

THE MEADOW

Jela Hasler-ena. Suitza, 2015. 9'

Zerk eragiten du beldur handiagoa gerrak edo haren sortasunak? Film honetako protagonistak diren behiek galdera horren erantzuna argi dutela dirudi, filma garatzen den Golan-go goietatik hurbil dagoen zelaitik. Ekialde Ertaina artalde baten lasaitasunetik eta bi geruzatan ikusirik. Xalotasunaren lehen geruza bat, non, hausnarkariak gatazkak haiengan eraginik ez balu bezala begiratzen diguten beren lau urdailak bakean elikatzen dituzten bitartean. Atzetik, xehetasunez beteriko hondo bat belar freskoaren lasaitasun eta behien baretasun eta zoriontasun hori mehatxatuz.

WHERE IS THE JUNGLE

Iván Castiñeiras-ena. Frantzia, Portugal, Brasil, 2015. 32'

Nahasketa xeble bat konbinatzen duen film amazoniar bat da: batetik, oihanean sartzea lortzen ez duen antropologoa dugu eta, bestetik, oiha-
netik irtetea lortzen ez duen indigena bat. Bi ezinezkotasun horien artean
dago zalantza: Non dago oiha? Baten bilaketan edota bestearen ihe-
saldian? Manaos-etik, Iván Castiñeiras galziarraren filmak bi norabide
horietan sortzen diren zalantzak azaltzen dizkigu. Antropologoarentzako
oiha inoiz erdietsi gabeko altxor bihurtzen da. Indigenarentzako, be-
rriz, ihes egitea gero eta zailagoa den kartzela.

12:30 – Bulevar Aretoa

EV EL

MASTER CLASS DE MICHAEL SNOW

Michael Snow Toronton jaio zen 1928an. Hainbat arlotan egin du lan: eskultura, pintura, argazkigintza, holografia, instalazioa, liburuen argitalpena, bideoa eta cinema. Sari asko jaso ditu Michael Snowk, besteak beste Guggenheim beka bat (1972) eta Kanadako Ordena (Oficial, 1982; Compañero, 2007). Frantziako Arte eta Letretako Ordenaren Zalduna da 1995az geroztik. 2004 honoris causa doktore izendatu zuen Paris I Unibertsitateak (Panthéon-Sorbonne).

Klase magistrala Federico Rossin-ek zuzenduko du

17:00 – Ganbera Aretoa

SO

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia (71')

Roya Eshraghi, Guido Hendriks, Mark Roberts eta Federico Molentino bertan izanik

THE TREE

Roya Eshraghi-rena. Kuba, Costa Rica, 2015. 13'

Zuhaitza airean hazi al daiteke lurrian sustraiak bota gabe? Galdera bitxi hori izango du euskarri film labur honetan Roya Eshraghi gazte irandarrak idazten duen olerkiak Habanan paseatzen ari zela bitxia bezain ahaltsua den irudia aurkitzean, alegia, aurri-egoeran dagoen eraikin bateko bosgarren solairuan bakarrez hazten den zuhaitz bat. Orduan, filma bere aitari idatzitako gutun eder eta berak jasaten duen deserrotzearen laburpen bilakatzen da, hirian, urrunean, zerutik elikatzen den zuhaitz baten irudi.

AMONG US

Guido Hendriks-ena. Herbehereak, 2014. 23'

Film labur ausarta Herbehereetako hiru pedofiloren buruan sartzen dena: Kasper izeneko ikasle bat, Hugo izeneko idazle gazte bat eta Ben izeneko 44 urteko finantza-aholkularia. Guido Hendriks zuzendari gazteak maisutasun handiz ukitzen du gai arantzatsu hau, izenburuak adierazten duen gisan, inguratzen gaituen eta bizilagun dugun gaia. 24 minututan, funtsezko galderak hauek sartzen dira: Nola eramaten da horrelako gatazka bat buruan? Inguruak zenbateko eragina du joera horietan? Eta zenbateko tartea aitormenaren eta ulermenaren artean?

THE FACTORY OF THE WORLD

Minna Rainio-rena, Mark Roberts-ena. Finlandia, 2014. 8'

Finlandiako lantegi bat Txinan birkokatzea da artista bikote honek film labur baten bidez erreakzionatzea eragin duen agertokia; begiratu batezko soiltasunean adimena eta salaketa sakona ezkutatzeko dituzte. European hutsik geratu ziren lekuak ikusten ditugu. Txinatik lekualdatze horren arrazoiak zein izan diren dioten ahotsak entzuten ditugu. Bereizte horretan dago gakoak: eskulan merkea, lan-baldintza gogorragoak eta hutsik geratzen den agertokia; bi munduren arteko zubia finkatzen du, gizakia bertatik igarotzen da bere handinahiarekin, aurrerapenarekin eta beste zorakeria batzuekin.

EXTREMOS

Juan Manuel Ferraro-rena, Federico Molentino-rena. Argentina, 2015. 27' Soinu industrialak kantu tradizional indigenekin nahasturik; hori da munduaren amaierako bidaia oniriko honetan lantzen den alderdietako bat zuzendari argentinarren eskutik, horien artean, Federico Molentino eta Juan Manuel Ferraro. Irudiek parez parekoen bilaketarekin ere jolasten dute: selk' nam komunitatearen zuri-beltzeko artxibo bat proiektatuko da magikoki aurrerapenaren espazio berrietan. Guztia bizi izan ziren lurralde sakratuan gertatzen da. Horrela, arkudun ehiztariak eta belagileak "filmikoki" edukiontziekin, argi-dorreekin eta hiriko paisaiekin elkarbiziko dira galdutako geografia batean.

17:00 – Gola Aretoa

TY

Ten Years Older 7. programa / Geroaldi sinplea (59')

Hiru film, horietan, denbora zirkularra da, ez dago amaierarik beti hasierara itzultzen delako, betiereko itzulketa batean bezala. Lehenengo filmean, haur bat hilda jaiotzen da. Azkenekoan, haur bat heriotzatik jaiotzen da. Eta, erdian, halabehararren ukapena taxidermiaren bitartez. Ohartarazpena: heriotzari begietara begiratzeko gai ez dena ez dadila saio honetara sartu.

MORT A VIGNOLE

Oliver Smolders-ena. 1998. 26'

Lehenengo ariketa heriotza filmatzea, filmean esaten den gisan, "hari lehenengo beldurra galtzeko". Oliver Smolders-en elkarrizketa bere familiaren artxiboko irudiekin, Veneziara egindako itxuraz zoriontsua den bidaiarenak, tragediak eteten dituen arte.

ARRANGEMENT OF SKIN

Karsten Krause-na. 2016. 24'

Taxidermia etorkizunari egindako tranparik handiena gisa. Agerlekua Stuttgart-eko Historia Naturaleko Museoa eta Lorategi Botanikoa eta Zoologikoa, gauez linternaren argitan paradisua bisitatu ahal izateko pribilegioarekin. Etorkizuna bere sinpletasunik handienara murriztuta, taupadarik gabeko Noeren Kutxa gisa, non, espeziak lo baleude bezala jarrita dauden berpiztuko dituen begiradaren zain.

ULTERIOR

Sabrina Muhate-rena. 2014. 9'

Bere aitonari eskainia. Garbi gera bedi Mexikon duten hiletaren kontzeptua hemen ez dugula ulertzen. Heriotza, gastronomia bezala, plater nazionala da eta bakoitzak bere erara dastatzen du. Zinemagileak bere herrialdeko gorputegira gonbidatzen gaitu, katedrala, non, hildakoen eskuak harrigarriki mugitu egiten diren baltsamatzaileen eskuetan eta haien muskuluak berpizten diren beste mundutik ekarriko balituzte bezala... Bizitza gutxien espero den lekuan ernetzen da.

17:00 – Corona Aretoa

PO

Pollet. Etxea eta mundua: 7. Emanaldia
V. Objektuak / Mundu isilaren bahituak

JOUR APRÈS JOUR

Jean-Daniel Pollet-ena, Jean-Paul Fargier-ena. Frantzia, 2006. 66'

Dieu sait quoi pelikula egin eta handik hamar urtera, Pollet-ek bere azken proiektua egingo du, hil ostekoa izango dena: han inguruneke objektuak mugimenduzko irudiaren bidez itxuraldatzen bazituen, hemen irudi geldiarekin, argazkiarekin egingo ditu. Jean-Paul Fargier gidoilari eta kolaboratzaileak amaituko du pelikula Pollet hil ondoren.

Jean-Paul Fargier bertan izanik

20:00 – Ganbera Aretoa

SO

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia

WRITING ON THE CITY

Keywan Karimi-rena. Iran, 2015. 60'

Teheranen horma-irudi eta pintada politikoen erabileran zeharreko ibilbide historikoa saiakera formatuan. Film honen egileari bere herrialdean sei urteko kartzela-zigorra eta 223 zigorradako kondena jarri diote. Keywan Karimi-k, bi gizonezko ahots eta emakumezko ahots baten bitartez, hiriburu irandarreko hormetan zeharreko bidaia batera gonbidatzen gaitu, horiek baitira ideia- eta adierazpen-askatasuna garatzeko leku bakarrak. Baita erregimenaren aldeko propaganda ere.

Keywan Karimi zuzendariak aurkeztuko du saioa distantziatik

20:00 – Gola Aretoa

XF

X Films (85')

Carolina Astudillo, Xacio Baño eta Velasco Broca bertan izanik

LO INDECIBLE

Carolina Astudillo-rena. Espainia, Txile, 2012. 14' (fragmento)

1974ko azaroan, Santiagoko ikastetxe txiki bateko zuzendaria, emakumezkoa, bahitu eta atxiloteta zentro batera eraman zuten Txileko Estatuko agente batzuek. MIR-Movimiento de Izquierda Revolucionaria (Ezkerreko Mugimendu Iraultzailea) taldeko kide izatea leporatu zioten. Gertatutakoa kontatzean, zentro klandestino batean emandako denbora gogoratu baino gehiago, halako bizipen bat kontatzeko ezintasuna adierazten du.

EL DESEO DE LA CIVILIZACIÓN: NOTAS PARA EL GRAN VUELO

Carolina Astudillo-rena. Espainia, 2014. 7'

Gerra, zentzurik gabeko fikzio zeharo maskulino gisa ikusita, eta emakumeen bazterketa, hezkuntzatik eta lanetik, zerbitzatzeko eta ama izateko baizik hezten ez dituen gizarte batean: bi gai, Virginia Woolfek Hiru ginea idazlanean arbuiazen dituenak.

EL GRAN VUELO

Carolina Astudillo-rena. Espainia, 2014. 60' (fragmento)

Francoren diktaduraren lehendabiziko urteetan, Clara Pueyo Jornetek, Alderdi Komunistako militanteak, Bartzelonako Les Corts kartzelatik ihes egin zuen, ate nagusitik. Une hartan betiko galdu zen haren arrastoa. Ihes etengabean bizi izan zen, eta bere alderdiaren zurruntasunetik ere ihes egiteko asmoa zuen. Bere historia bere garaiko emakumeen historia bera da, eta askatasunaren alde eraman zuten borrokarena, haiek erreprimitzen ahalegindu zen gizarte batean.

SER E VOLTAR

Xacio Baño-rena. Espainia, 2014. 13'

Zinema gile gazte(?) bat aitona-amonen etxera itzultzen da bideo-erretratu bat egiteko asmotan. Hori baita zinema, ezta?

ECO

Xacio Baño-rena. Espainia, 2015. 19'

Ekori ahotsa kendu zioten eta besteek ziotena errepikatzen zigorra ezarri zioten. Deuseztatua, haitzulo batean sartu, eta gizakiengandik aldentzea erabaki zuen.

AVANT PÉTALOS GRILLADOS

Velasco Broca-rena. Espainia, 2007. 11'

Gauza txikiak maite dituzten izaki estralurtar batzuek itsuentzako soinu-esperimentazioko erakunde bat erasotzen dute. Hartu-eman horren ondotik, inbaditzaileek erabakitzen dute eskultoreek eta kulturistak direla beren zibilizaziorako nolabaiteko interesa duten bolumenen sortzaile bakarrak.

VAL DEL OMAR FUERA DE SUS CASILLAS

Velasco Broca-rena. Espainia, 2010. 5'

2009ko uztailetik urrira bitarte zinema kamerak bultzatu eta erregistratu zituen bikotekide ohien eta haien egungo bikotekideen arteko topaketak. Proiektu hau garatzen ari zela, Noosfera sartu zen, dokumental bat egiteko enkargua, PLAT laborategia zenbait museo-erakundetara lehenengo aldiz eraman zenekoari buruz. Lanerako gune horretan, makinak, liburuak eta audio zintak zeuden tokian egoteak bi proiektuek bat egiteko aukera eman zuen. Orditik aurrera esku-hartze berriekin egin zen lan, maxima gnostiko hau lurrera botatzeko helburuarekin: gizaki triste baten otoitzak pleromara iristeko adina indarrrik ez duela.

NUESTRA AMIGA LA LUNA

Velasco Broca-rena, 15' (work in progress)

III. mendeko Perlaren ereserkia testu gnostikoaren egokitzapen librea. Indian eta Espainian filmatua, 2013tik 2015era.

20:00 – Corona Aretoa

PO

Pollet. Etxea eta mundua: 8. Emanaldia

Koda. Pollet, gure garaiko zinemagilea

JEAN-DANIEL, PARLE MOI ENCORE!

Jean-Paul Fargier-ena. Frantzia, 2016. 58'

Jean-Daniel, parle moi encore! Jean-Paul Fargier-ek Cinéastes de notre temps serie ospetsurako Jean-Daniel Pollet-en inguruan egindako erretratua da; erretratu horren bitartez, Pollet-ek XX. mendearen bigarren erdialdean zinemaren historiarako zuen garrantzia berresten da. Punto de Vistak munduko estreinaldia aurkezteko ohorea izango du.

Jean-Paul Fargier bertan izanik

22:30 – Ganbera Aretoa

SO

Atal Ofiziala - Eskualde Nagusia (79')

THE PLACE

Julia Poplawska-rena. Polonia, 2015. 14'

Polonia edo munduak Polonia izena galtzen duen eta bere buruari lekua deitzen dion lekua. Herrialdeko lekurik garaienean dagoen lan-geltoki bat dela baino ez dakigu, zerutik zintzilikatutako lekua, mendietan, urrutikoaren eta abandonatutako gizakiaren hiriburua. Han bizi diren gizakiek ez dakigu zehazki zer egiten duten, baina zelatan dihardute, beren postuetan zaintzan gau eta egun, nahiz elurra nahiz kazkabarra egin, ihesbiderik ez duten lekuan, euren buruen baitan galduta dauden lekuan.

IF MAMA AIN'T HAPPY, NOBODY'S HAPPY

Mea de Jong-ena. Herbehereak, 2015. 24'

Ama batek eta bere alabak ispilu berdinari begirutzen diote: inongo gizonak ez dute euren bizitzan iraun eta rola aldatzen dituzte. Lehenengo batek egiten du aitormena eta, ondoren, besteak edukiaren ataltzat bere making-of-a gehitzen duen film batean; komedia faltako ez den emakume independenteari buruzko psikoanalisi da. Isiltasun handia. Filmak atzerago begirutzen du eta lau belaunalditan gauza bera gertatu zela konturatzen dira: etxe horretan gizonak ez zuten irauten, ez dute inoiz iraun. Amak harro kontatzen du, alabak, berriz, bere zalantzak ditu.

THE MEADOW

Jela Hasler-ena. Suitza, 2015. 9'

Zerk eragiten du beldur handiagoa gerrak edo haren sortasunak? Film honetako protagonistak diren behiek galdera horren erantzuna argi dutela dirudi, filma garatzen den Golan-go goietatik hurbil dagoen zelaitik. Ekialde Ertaina artalde baten lasaitasunetik eta bi geruzatan ikusirik. Xalotasunaren lehen geruza bat, non, hausnarkariek gatazkak haiengan eraginik ez balu bezala begirutzen diguten beren lau urdailak bakean elikatzen dituzten bitartean. Atzetik, xehetasunez beteriko hondo bat belar freskoaren lasaitasun eta behien baretasun eta zoriontasun hori mehatxatuz.

WHERE IS THE JUNGLE

Iván Castiñeiras-ena. Frantzia, Portugal, Brasil, 2015. 32'

Nahasketa xeble bat konbinatzen duen film amazoniar bat da: batetik, oihanean sartzea lortzen ez duen antropologoa dugu eta, bestetik, oihanetik irtetea lortzen ez duen indigena bat. Bi ezinezkotasun horien artean dago zalantza: Non dago oihana? Baten bilaketan edota bestearen ihesaldian? Manaos-etik, Iván Castiñeiras galziarraren filmak bi norabide horietan sortzen diren zalantzak azaltzen dizkigu. Antropologoarentzako oihana inoiz erdietsi gabeko altxor bihurtzen da. Indigenarentzako, berriz, ihes egitea gero eta zailagoa den kartzela.

Julia Poplawska, Mea de Jong, Jela Hasler eta Iván Castiñeiras bertan izanik

22:30 – Gola Aretoa

XF

X Films

CARRETERA DE UNA SOLA DIRECCIÓN

Xiana Gómez-Díaz-ena. Espainia, 2016. 25'

Errepideko burdela agerikoa eta ikusezina da aldi berean. Film honek babesten eta erabiltzen duen eta, era berean, ukatzen duen gizartearen harreman kontraesankorra aztertzen du, haren eszenaratzean, kokapenean eta arkitekturan, opakutasunean eta inguratzen duen isiltasunean geldiune bat eginez.

Xiana Gomez-Diaz bertan izanik

22:30 – Corona Aretoa

PO

Pollet. *Etxea eta mundua: 4. Emanaldia*

IV. Testamentua / Denboraren errepikapena

CONTRETEMPS

Jean-Daniel Pollet-ena. Frantzia, 1988. 100'

Contretemps, testamentu-pelikula moduan sortua da. Pollet-en obra aukera berrietara zuzentzen du: bidaia mugiezin berri bati ekinez, zinemagilea bere filmografia aztertzen eta berriz hausnartzen hasiko da muntatze-mahaian, eta aurreko irudi guztiak esanahi berriko lan-material bihurtuko dira, etengabeko metamorfosian.

11:00 – Bulevar Aretoa

XF EL

X Films

X FILM PROIEKTUEN AURKEZPENA

Carolina Astudillok, Xacio Banok eta Velasco Brocak X Film proiektura aurkeztutako proposamenak erakutsiko dituzte hautaketa-batzordearen aurrean.

12:30 – Gola Aretoa

SB

Saio bereziak: José Luis Guerin 1

LA ACADEMIA DE LAS MUSAS

Jose Luis Guerin-ena. Espainia, 2015. 92'

Raffaele Pinto filologia-irakasleak ikasleei sutsuki irakasten dizkie Danteren *La Divina comedia*-ri buruzko teoriak. Etxera itzultzean, emazteak galderak egingo dizkio, ez baita fidatzen haren ikuspegi pedagogikoaz; izan ere, erreferentzia klasikoetan inspiratuta, «Musen Akademiaren» bitartez, mundua birsortu nahi du poesian oinarrituta. Proiektu eztabaidagarri honek hizkuntzak eta grinak menderatutako egoera kontrolaezinak sortuko ditu.

Jose Luis Guerin bertan izanik

17:00 – Ganbera Aretoa

SB

Saio bereziak: José Luis Guerin 2

LE SAPHIR DE SAINT-LOUIS

Jose Luis Guerin-ena. Espainia, Frantzia, 2015. 35'

Pelikulak La Rochelleko Saint-Louis katedrala du oinarri, batere “flamboyant” ez den katedral bat, baina kaperetako batean altxor berezi-berezi bat gordetzen duena, zinemagilearen begiaren eta arimaren erakargarri. Hantxe, merkataritza-nabigazioaren ex-voto ugariren artean, margolan bat ikus daiteke, Saphir itsasontziaren tragedia erakusten duena: esklabo-trafikorako goleta bat izan zen, luzaroan tropikoen arteko uretan hondoa jota gelditu zena, barrenean 271 esklabo eta 30 marinela zituela. Margolan txiki hori katedral batean historia handiari irekitako ate ezkutu baten modukoa da.

Solasaldia Jose Luis Guerin-ekin



17:00 – Gola Aretoa

TY

Ten Years Older 3. programa / Denbora gu gabe (71')

Aparteko hirukotea, Lemaitre, Loznitsa eta Frampton, beren txango filmiko bitxiekin, non bisita hirukoitza proposatzen diguten gizakiak denboraren gain duen ahalmena desagertzen den eta denbora lasai gogoak emanda bezala mugitzen den amildegira.

SIX FILMS INFINITESIMAU ET SUPERTEMPORELS

Maurice Lemaitre-rena. 1967-1975. 9'30"

Sortzen duten denbora propiotik kanpo existitzen ez duten filmak. Lemaitre berak Denborari buruzko zinema deitzen zion eta egin behar den film baten ideia gisa soilik aurkezten da: zinema imajinatutakoa izango da edo ez da izango. Ikusi aurretik ikuslearen buruan existituko duten filmen sei proiektu.

THE TRAIN STOP (L'ATTENTE)

Sergei Loznitsa-rena. 2000. 25'

Denborarik gabeko filma. Edota, denbora ezari buruzkoa. Hemen joko teknikoa plano eta enaldi luzean uztea eta jardueraz hustea da. Errepi-katzea. Konstantzian 20 minututan zehar. Bidaiariak, lurlean, erdi lo itxoiten dute geltoki batean iristen ez den tren baten iritsiera. Horrela, itxaronaldia izango da protagonista bakarra eta, denbora, udako euli baten hegaldiaren soinuak soilik markatuko du edota atera irteten duen neguko haizeak.

(NOSTALGIA)

Hollis Frampton-ena. 1971. 36'

Nostalgia parentesi artean eta haren "denbora" kakotx artean. Frampton Michael Snow-ren ahotsaz baliatzen da bere oroitzapenak iraganeko argazkien bidez kontatzeko, su-txikian paperezko irudi bakoitza erre errautsetara murrizten den arte. Suak markatzen du kontaktaren luzera. Horrela, inongo irudiek ez haien oroitzapenak ezingo dute hura kontsumitzen duen sugarrak baino gehiago iraun. Zineman oroimenaren eta behin-behinekotasunaren metafora handia, ikusten dugun argazkiei buruz inoiz hitz egiten ez digun, baizik eta, agertuko den argazki bati edo jada desagertu den bati buruz hitz egiten digun, ahots baten disoziazioak sendotuta, guztiari aurrerapen-errezitalaren kutsua emanez edota, alderantzizkoarena, hots, oroipenarena.

17:00 – Corona Aretoa

PO

Pollet. Etxea eta mundua: 6. Emanaldia

V. Objektuak / Mundu isilaren bahituak

DIEU SAIT QUOI

Jean-Daniel Pollet-ena. Frantzia, 1994. 84'

1989. urtean, Pollet-ek tren-istripu larria izango du, eta bizi guztirako Probenzako etxaldean sartuta geratuko da. Bidaiatzeko gai ez denez, etxetik atera gabe, haren filmografia gorenera eramango duten esperimendu erabakigarriak garatuko ditu. Haren karrerako garrantzitsuen eta lorpenik handienetarikoa Dieu sait quoi da, poesiaren egokitzapen zinematografikoa pentsatzeko funtsezko pelikula.

20:00 – Ganbera Aretoa

TY

IXTEKO ETA SARIAK BANATZEKO ZEREMONIA

SARASASTRE

Ixte-ekitaldia luxuzko gonbidatuarekin: Pablo Sarasateren piano handia, La Perla Hotelean gordea, 1908az gerostik inork jo ez duena. Denboraren aurkako kontzertua Iñar Sastre piano-jotzailearen eskutik.



Ten Years Older 8. programa / Koda

AT THE ACADEMY

Guy Sherwin-ena. 1974. 5'

Academy Leader-ekin egina. Atzerako kontaketarako erabiltzen da emaldi bakoitzaren hasieran. Pelikulak kopia positiboaren eta negatiboaren joan-etorriak ikertzen ditu begizta berean. Era horretan, paralelismo bitxia sortzen da pelikularen eta soinuaren aldatetetan.

SHORT FILM SERIES

Guy Sherwin-ena. 1975-2014. 30'

Guy Sherwin-engan denbora eta argia sinonimoak dira. Bere piezek, laburrak, zuri-beltz bikainean eta mutuan dauden koadro txikien antzera, bere egunerokotasunaren horzkada barnebiltzen dute, klabe liriko zabalean aurkeztua. Hemen denbora bada zerbait, batez ere, poetikoa da –inoiz ez dago hasierarik ez amaierarik– eta edozein txokotan uzkurtuta gure zain egon daitekeela frogatzen digu.

Tree and Cloud 1977/78. 1'52"

Wind and Water 1980. 2'44"

Light Leaves 1978. 2'44"

Clock Train 1978. 2'50"

Metronome 1978. 3'

Tap 1978. 2'53"

Breathing 1978. 2'50"

Mei 2010. 3'

Piano 2013. 2.40

Candle and Clock 1978. 3'

VITA BREVIS

Thierry Knauff-ena. 2015. 40'

Naturaren mirari berri bat ikusteko pribilegio handia eskaintzen digun amaierako denbora: une bat baino irauten ez duen bizitza hauskorreko milioika tximeleten loratze ederra Tisza ibaiko –Danubioren ibaiadarrak– uren gainean flotatzen duten bitartean. Vita brevis une iragankor horren olerkia da, bizitzaren dantza arin eta iheskorri deia Thierry Knauff belgikarraren kamera-sareaz harrapatutako intsektu horien bizitzaren bitartez.

Otsailak 14, Igandea

17:00 – Ganbera Aretoa

SO

IKUS PUNTU JAIALDIAREN SARI NAGUSIA

17:00 – Gola Aretoa

SO

IKUSLEEN SARIA / GAZTEEN SARIA

17:00 – Corona Aretoa

SO

JEAN VIGO SARIA / LABURMETRAI ONENA SARIA

20:00 – Ganbera Aretoa

SB

Saio bereziak: Ainara Vera eta Victor Kossakovsky

MIRA, MI REY

Ainara Vera-rena, Victor Kossakovsky-ena. Espainia, 2016. 40'

Felipe VI.a erregea aldarrikatzeko zeremonia hasten den unean, zine-magileek hasiera ematen diote grabazio bati, erresumako kale arrunt batean, Iruñean. Zeremoniaren solemnitatea –off-en entzuten dugunaz– ez dator bat oinezkoen espontaneitatearekin. Erregearen hitzak herritarren solasekin, aurreko gauean La Rojak jasandako porrotagatik kezkatuago errege berriaren aldarrikapenarekin baino. Denbora filmikoa eta denbora erreala une historiko bat dokumentatzeko egokitzen dira pelikulan.

Solasaldia Ainara Vera eta Victor Kossakovsky-ekin



BALUARTEKO Ganbera Aretoa

	ASTELEHENA 8	ASTEARTEA 9	ASTEAZKENA 10	OSTEGUNA 11	OSTIRALA 12	LARUNBATA 13	IGANDEA 14	
10:00	<p>ATAL OFIZIALA</p> <p><i>Oleg y las raras artes,</i> 70' Andrés Duque</p> <p><i>Cantonesé Rice,</i> 50' Mia Ma</p> <p><i>Siriako film laburrak,</i> 3'</p>	<p>ATAL OFIZIALA</p> <p><i>Lampadusa in Winter,</i> 93' Jakob Brossman</p> <p><i>Siriako film laburrak,</i> 4'</p>	<p>ATAL OFIZIALA</p> <p><i>Bella e perduta,</i> 87' Pietro Marcello</p> <p><i>Siriako film laburrak,</i> 5'</p>	<p>ATAL OFIZIALA</p> <p><i>Olmo and the Seagull,</i> 85' Petra Costa, Lea Glob</p> <p><i>Siriako film laburrak,</i> 5'</p>	<p>ATAL OFIZIALA</p> <p><i>The Place,</i> 14' Julia Poplawska</p> <p><i>If Mama Ain't Happy, Nobody's Happy,</i> 24' Mea de Jong</p> <p><i>The Meadow,</i> 9' Jela Hasler</p> <p><i>Where is the Jungle,</i> 32' Iván Castañeras</p>			
12:30	<p>ATAL OFIZIALA</p> <p><i>Las letras,</i> 77' Pablo Chavarría</p> <p><i>Siriako film laburrak,</i> 5'</p>	<p>ATAL OFIZIALA</p> <p><i>The Death of J.P. Cuenca,</i> 90' João Paulo Cuenca</p> <p><i>Siriako film laburrak,</i> 4'</p>	<p>ATAL OFIZIALA</p> <p><i>Casa Blanca,</i> 62' Aleksandra Maciuszek</p> <p><i>Siriako film laburrak,</i> 9'</p>	<p>ATAL OFIZIALA</p> <p><i>The Tree,</i> 13' Royce Eshraghi</p> <p><i>Among Us,</i> 23' Guido Hendrikx</p> <p><i>The Factory of the World,</i> 8' Minna Rainio, Mark Roberts</p> <p><i>Extremos,</i> 27' Juan Manuel Ferraro, Federico Molentino</p>	<p>ATAL OFIZIALA</p> <p><i>The Place,</i> 14' Julia Poplawska</p> <p><i>If Mama Ain't Happy, Nobody's Happy,</i> 24' Mea de Jong</p> <p><i>The Meadow,</i> 9' Jela Hasler</p> <p><i>Where is the Jungle,</i> 32' Iván Castañeras</p>			
17:00	<p>SAIO BEREZIAK</p> <p>CLAIRE SIMON</p> <p><i>Le Bois dont les rêves son faits,</i> 144'</p>	<p>ATAL OFIZIALA</p> <p><i>Oleg y las raras artes,</i> 70' Andrés Duque</p> <p><i>Cantonesé Rice,</i> 50' Mia Ma</p>	<p>TEN YEARS OLDER 5.</p> <p>LEHENALDI KONPOSITUA (91')</p> <p><i>Memento 14,</i> 24' Ahmed Bouanani</p> <p><i>Decasia,</i> 57' Bill Morrison</p>	<p>SAIO BEREZIAK</p> <p>MICHAEL SNOW</p> <p><i>La Région Centrale,</i> 180'</p>	<p>ATAL OFIZIALA</p> <p><i>The Tree,</i> 13' Royce Eshraghi</p> <p><i>Among Us,</i> 23' Guido Hendrikx</p> <p><i>The Factory of the World,</i> 8' Minna Rainio, Mark Roberts</p> <p><i>Extremos,</i> 27' Juan Manuel Ferraro, Federico Molentino</p>	<p>ATAL OFIZIALA</p> <p><i>The Tree,</i> 13' Royce Eshraghi</p> <p><i>Among Us,</i> 23' Guido Hendrikx</p> <p><i>The Factory of the World,</i> 8' Minna Rainio, Mark Roberts</p> <p><i>Extremos,</i> 27' Juan Manuel Ferraro, Federico Molentino</p>	<p>SAIO BEREZIAK</p> <p>JOSE LUIS GUERIN 2</p> <p><i>Le Saphir de Saint-Louis,</i> 35'</p>	<p>IKUS PUNTU</p> <p>JAIALDIAREN SARI NAGUSIA</p>
20:00	<p>20:30</p> <p>INAUGURAZIOA</p> <p>TEN YEARS OLDER: ATARIKOA</p> <p><i>Il pianeta azzurro,</i> 83' Franco Piavoli</p>	<p>PIO CARO BAROJARI OMENALDIA</p> <p><i>Pio Caro Baroja, elkarrizketa,</i> 18'</p> <p><i>Navarra, cuatro estaciones: Oroño,</i> 27' Pio Caro Baroja</p> <p><i>Navarra, cuatro estaciones: Invierno,</i> 39' Pio Caro Baroja</p>	<p>SAIO BEREZIAK</p> <p>LUIS OSPINA</p> <p><i>Todo comenzó por el fin,</i> 208'</p>	<p>IXTE-EKITALDIA</p> <p>SARASASTRE</p> <p>TEN YEARS OLDER: KODA</p> <p><i>At the Academy,</i> 5' Guy Sherwin</p> <p><i>Short Film Series (1975-2014),</i> 30' Guy Sherwin</p> <p><i>Vita Brevis,</i> 40' Thierry Knauff</p>	<p>ATAL OFIZIALA</p> <p><i>Writing on the City,</i> 60' Keywan Karimi</p>	<p>ATAL OFIZIALA</p> <p><i>Writing on the City,</i> 60' Keywan Karimi</p>	<p>SAIO BEREZIAK</p> <p>AINARA VERA Y VICTOR KOSSAKOVSKY</p> <p><i>Mira, mi rey,</i> 40'</p>	
22:30		<p>ATAL OFIZIALA</p> <p><i>Las letras,</i> 77' Pablo Chavarría</p>		<p>ATAL OFIZIALA</p> <p><i>Olmo and the Seagull,</i> 85' Petra Costa, Lea Glob</p>	<p>ATAL OFIZIALA</p> <p><i>The Place,</i> 14' Julia Poplawska</p> <p><i>If Mama Ain't Happy, Nobody's Happy,</i> 24' Mea de Jong</p> <p><i>The Meadow,</i> 9' Jela Hasler</p> <p><i>Where is the Jungle,</i> 32' Iván Castañeras</p>			

SARREREN SALMENTA

BALUARTE

Baluarteko plaza z/g. 31002 Iruña

- Prezioa: 3 €
- Sarrerren salmenta:
- Urtarrilaren 29tik (ostirala) otsailaren 7ra (igandea), 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Otsailaren 8tik (astelehena) aurrera, 9:30etik 14:00etara eta 16:30etik 22:30era.
- Sarrera doan izango da hitzaldi eta aurkezpenetan; gonbidapena aurrez jaso behar da leihatilan.

KATALOGOAREN ETA "TIME" LIBURUAREN SALMENTA

- Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtza (Navas de Tolosa, 21) eta Baluarteko Katalogoaren prezioa: 5 €
Liburuaren prezioa: 15 €

AUTOBUSAK

- Armada etorbidea: 4, 8, 9, 10, 12, 15 eta 18
- Aita Moret: 16 eta 17
- Yanguas y Miranda: 10, 17, 19 eta 22

Informazio gehiago: <http://www.mcp.es/transporte>

www.puntodevistafestival.com



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

FUNDACION
BALUARTE

Colaboran / Laguntzaileak / Collaborate

AC/E
ACCIÓN CULTURAL
ESPAÑOLA

INSTITUT
FRANÇAIS

radio 3

REVISTA
DON